


TXITXILIBAKIO

5. ALEA — 150 pezeta
1989ko UZTAILA



IKUSI MAKUSI TXITXILIBAKION

ZER IKUSI?

AURKIBIDEA

Aurkibidea	1
Pelota gora, pelota behera...	2
Etxegiña 9	9
Bitxikeriak	11
Erretzeari utzi: nahi eta ezin ...	12
Ipuina	16
Test Psikologikoa	18
Entsaia eta entsaia, paratu gabe	24
"Koloreak ere nortasunaren ispilu".....	26
A.E.K. pil-pilean	28
Pastelero dale fuego	32
Aholkuak	33
Liburuak-Diskoak-Zinea	34
Mendizaleak aurrera	35
Polikiroldegia bai baina.....	38
Denborapasa	40
Irakurlearen txokoa	42

HARPIDETZA

Izen deiturak:	
Helbidea	
Herria	
Nola ordaindu nahi duzu ?	
Banku bidez	Errenboltsoz
Kontu korrontearen zkia.....	
Sinadura	

KAIXO IRAKURLEOK!

Bai, bai, 5.alea eta zuen notiziarik ez!
Horrela ezin dugu jarraitu, bertan behera utzi behar harko dugu laguntzarik eskaintzen ez badiguzue. Hala ere, ez dugu itxaropenik galtzen eta hemen doakizue oporretarako al tropikalak.

LAN TALDEA:

L.Mujika
G.Osoro
J.L.Mugertza
K.Zuazubiskar
L.Gorostiaga

KOLABORATZAILEAK:

I.Arrillaga
F.Etxeberria
A.Zabaleta
R.Arozena
O.H.Oko Ikasleak
Irakurleak

Bidali txartel hau zuzenbide honetara:

"Txitxilibakio" San Frantzisko 24-1.ezk. ELGOIBAR



BABESLEAK: ELGOIBARKO UDALA ETA LANKIDE AURREZKI KUTXA.

PELOTA GORA, PELOTA BEHERA !!!

Euskaldunon kirol preziatuenetarikoa den zesta puntak egun gogorak bizi ditu Estatu Batuetan. Gauzak hobetu nahian elkarte bat sortzea pentsatu zuten euskal puntistek: IJAPA, (International Jai-Alai Players Association) jaio zen, 450 bat puntisten indarrean. Eta enpresek mehatxuz nahiz mendekuz erantzungo zietela ikusirik grebara jo zuten, eta presio bidez, IJAPA onarrezaten behartu asmoz. Berehala hamabi bat frontoi itxi zituzten aste batez. Eta pilotariek grebari eutsi zioten, hasiera batean

astebeteko gauza izango zela pentsatzen zuten, baina enpresek taktika askoz ere gordinagoa mantendu dute, eta prozesua erabat luzatu da. Ez dute IJAPA onartzen, eta aurrera jarraitzen dute zenbait eskirol eta pilotari berriz baliatuz dirua irabazten, ez lehen hainbat, baina frontoiak irekita daude.

Arazo hau dela eta, Elgoibarko puntistekin el-karrizketa bat izan dugu eta bide batez, kirol hau hobeto ezagutzeko aukera izan dugu.

XABIER ARRIOLA: 21 urte

TX.: Nolako pausoak eman dituzu profesional izatera iritsi arte?

X.A.: Hamahiru urte nituela, aitak pilotari izateko aukera eman zidan, Cernikara partidu bat ikustera joango ginela eta gustatu ezkerotar bat erosiko zidala esanez. Halaxe izan zen eta Markina Etxeberrin entrenatzen hasi nintzen. Eskola jarraitzearen Profesionalen hasi nintzen, Durangon entrenamenduak egiten nituen bitartean.

Pelotari karreran soldaduzka arazo bat da, eta zenbat eta lehenago bukatu hobea. Horrela ba, hemezortzi urterekin boluntario joan nintzen Bartzelonara han debuta egiteko asmotan. Soldaduzkan gauzak okertu egin zitzaizkidan eta hemeretzi urterarte ezin izan nuen debuta-


tu. Hemeretzi urterekin debutatu eta orain arte. hogeitabat ditudala.

TX.: Nolako eragina izan du pilotarien grebak zuengan?

X.A.: Gure enpresa amerikarrak, duela gutxi, inolako abisu gabe frontoia itxi zuen. Orain, Ameriketara joateko aukera eman digute baina eskirol bezala, pilotarien greba hori dela eta. Gu ez gaude baldintza horietan joateko prest eta hemen gelditu gara.

TX.: Zer da zailagoa profesional izatera iristea ala mantentzea?

X.A.: Biak ere zailak dira. Profesional mailara iristeko lan asko egin behar da eta demonstratu beharra daukazu; nik horregatik egin nuen Bartzelonan soldaduzka, gero debuta errazago gerta zekidan. Profesional mailan, berriz, "ratxa" onak eta txarrak izaten dira.



XABIER ARRIOLA, 21 URTE.

TX.: Egia al da zesta munduan ematen den mafia?

X.A.: Ameriketara beharbada bai, hor Tijuana aldean (Mexikon), baina ni han egon ez naitenez, ez dakit ezer ...

ROBERTO AZPILLAGA : 20 urte

TX.: Noiztik duzu pilotarako zaletasuna eta nola hasi zinen?

R.A.: Beno, orain dela zortzi urte hasi nintzela, hau da, hamabi urte nituela. Ni baino hamabost egun lehenago Xabier Arriola hasi zen eta gure aitak lagunak ziren. Egun batean aitak otarra ekarri zidan etxera eta ala, kriston zestua lurrerainokoa eta ni txiki txikia, eta hala hasi nintzen.

TX.: Zer mailatan jokatzen duzu? Konpetizioetan parte hartu al duzu?

R.A.: Hori zaila da erantzutea, agian "aficionados de primera" izango litzateke. Orain "Torneo Federaciones" jokatzen ari naiz "Euskadiko Txapelketa", hori deitzen da "GRABN Absoluto", hau da, Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Nafarroak parte hartzen dute txapelketa horretan. Konpetizio horretan maila ezberdinak daude, kategoria jubenilak, sub 22 eta gero gu "Absoluto", ez dakit konkretuki zein maila den.

TX.: Elgoibarren puntistak sortu eta bultzatzeko aukerarik ba al dago?


R.A.: Nire ustez bai, adibidez Baltasar Pilota Elkartek beti esku pilota bultzatu du eta txapelketetan parte hartzen hasi garenean urreratu dira zenbait galdezka. Orain, Polikiroldegian frontoia ipini dute eta kirol hori bultzatzeko aukera badago, adibidez gure partidu batzuk antolatu, baita ere Markinako jokalaria ekarri eta hilabetero bi partidu antolatu jende gazteak kirol hori ezagutu dezan.

TX.: Afizio falta nabari al da?

R.A.: Hemen ez dago afiziorik, Gipuzkoan oso gutxi, Mutrikun, Donostian ere gutxi, Andoainen eta hemen Elgoibarren ez dago ezer, banaka banaka hasten dira pilotariak.

TX.: Entrenatzera kanpora joaten al zarete?

R.A.: Bai, Markinara, nik hemen partidu bat bakarrik jokatu dut San Anton egunean Kiroldegian. Ez dugu inolako laguntzarik aurkitu gure herrian eta zesta punta oso garestia da, zesta batek 22.000 pzta. bali du eta bi edo hiru hilabetero aldatu



egin behar duzu zesta. Hori dena gure kontura egin behar dugu, ez dugu laguntzarik jasotzen.

TX.: Gaur egun nolakoa da zuen egoera?

R.A.: Nik soldaduzka Irailean bukatu nuen eta Azaroan Ameriketara joatea espero nuen. Baina ihazko Apirilean hasi zen greba eta gure egoera gero eta larriagoa da, greba gero eta luzeagoa izatea kaltegarria da. Nik soldaduzka bukatu, hona etorri eta ez ikasketarik, ez lanik ...



IÑAKI ETXABE : 19 urte

TX.: Nola hasi zinen kirol hau praktikatzen?

I.E.: O.H.O.ko zazpigarren kurtsoan, orain dela zazpi bat urte. Roberto eta beste lagun batzuk ikusten nituen jokatzen eta beraiekin joaten nintzen Pilarrera. Nire osaba ere puntista zen eta beti Ameriketara zebilen, egun batetan zestua opatiruz idaten eta horrela hasi nintzen Errege egun batetan.

TX.: Zein mailatan jokatzen duzu?

I.E.: Afizionatu mailan, perfektionatzen zoen neurrian partidu zailagoak jartzen dizkizute, hortaz azkeneko partidua izaten da beti onena. Ez dut inoiz konpetizioetan parte hartu. Lagunarteko partiduak izan dira igandero, hasieran bi astetik behin, gero Berriatuan ireki zuten beste frontoi bat eta asteburuetan bi edo hiru partidu jokatzen genuen, gero Mutrikun ere, baina konpetizio konpetizioa behin ere ez.

TX.: Zesta punta praktikatzeari utzi diozula-koaren berri izan dugu, egia al da?


I.E.: Bai, horrela da. Eskumuturra hautsi nuen eta zazpi hilabete egon nintzen jokatu gabe. Berrero ere hasi nintzen baina gero gaixotu egin nintzen eta uda osoa pasa nuen gaixorik. Horrela, pasadan udan utzi nuen eta ordutik ez dut jokatu, noizean behin entrenatzen dut bakarrik.

TX.: Berrero hasteko asmorik ba al duzu?

I.E.: Momentuz ez, berrero entrenatzen hasi naiz baina ez dut arazoa garbi ikusten.

TX.: Gure herrian kirol hau bultzatzeko aukerarik ikusten al duzu?

I.E.: Polikiroldegian frontoia badago baina ez dago jokatzeke zaletasunik, gainera giroa falta da. Markinan betidanik egon da giroa, han sortu bait da zesta punta. Hemengo gazteen artean futbolaz hitzegiten da eta Markinan pilotaz. Kirol hori bultzatzeko eskola bat sortu beharko litzateke, bestela oso zaila ikusten dut.



SANTI URAIN : 18 urte

TX.: Noiztik duzu pilotarako zaletasun hori?

S.U.: Zaletasuna betidanik, ni hamasei urterekin hasi nintzen partiduak jokatzen baina hamalau urterekin hartu nuen zestua lehenengo aldiz. San Migel auzoan dagoen Alzate baserriko semea Ameriketatik etorri zen eta zestua ekarri zuen, nik frogatzea nahi nuen eta zestua hartu eta gustatu egin zitzaidan.

TX.: Maila batetan klasifikaturik egoteko konpetizioetan ibili behar al da?

S.U.: Bai, ni ez naiz inoiz torneo batetan sartu, hortaz ez nago klasifikaturik eta ez dakit nire maila "Aficionados de segunda" edo zer izango den.

TX.: Non ikasi duzu zesta puntan?

S.U.: Ni, Markinako eskola batetan nabil. Lehen Ameriketako kantera egiteko eskola zen baina gaur egun gizon batek bere kontura eramaten du eskola. Lehen, amerikarrek ordaintzen zuten hileroko zerbait pilotak eta erosteko. Baina orain gizon horrek jartzen ditu partiduak, programak berak egiten ditu eta hortxe gabilta.

TX.: Denak al zabilzate Markinako eskola berdinean?

S.U.: Ez, bi aukera daude, entresia bakoitzak bi eskola ditu, bat Markinan eta beste bat Bartzelonan, bakoitzak bere kantera dauka.


TX.: Elgoibarren kirol hau bultzatzeko aukerarik ikusten al duzu?

S.U.: Lehen ez, partiduak jokatzeko frontoi egokirik ez zegoen eta. Orain frontoia badago eta adibidez, Udaletxeak maisu arduradun bat ekarri, zestu zahar pilo bat hartu eta propaganda piskat eginez gero, jende gazteak kirol hau ezagutuko luke eta agian zaletasuna sortuko litzateke. Behintzat bultzakada bat emateak merezi du, eta jende gaztea hasi ezker hori mundu bat da, lagun berriak, kanpora irteerak, e.a.

TX.: Pilotarien grebari buruzko eritzirik eman-go al diguzu?

S.U.: Oso egoera kezkarria da. Amerikarrek, profesionalak greban daudenez kanterako gazteak nahi dituzte partiduak antolatzen eta frontoiak ez ixteko, baina gu joan ezker eskirrol bihurtuko ginateke, eta orduan ez da inor joan. Honen ondorioz, Amerikarrek alde batetara utzi gaituzte, dirua kantera batean alferrik gastatzeko prest ez daude eta.

Gauzak aldatu egingo dira arazoa konpontzen denean, baina hamairu hilabete darimate greban pilotariak ezer kobratu gabe. Ni orain soldaduzka egiten nago Debako Gurutze Gorrian. Eta oraindik bi urte ez da asko, nire ustez, lau bat urte beharrezkoak dira jokua menperatzeko eta hor nabil ikasten.



ETXEGIÑA IX. Bertso-Paper lehiaketaren irabazleak

Aurten Etxegiña bertso paper lehiaketaren IX. edizioa ospatu da. Oraingo honetan Xabier Amuriza suertatu zen irabazle. Urtero bezala Herriko Antzokia izan zen jaialdiaren eskenatokia. Sari banaketaz gain, bertso eskolakoak eta triki-tilariak ikusi eta entzuteko aukera izan genuen.

Txapelketak bost maila izaten ditu; 0, 1, 2 eta 3. mailak herrikoentzat dira; 4. mailan, berriz, edonongo lanak onartzen dira. Antolatzaileentzat ez zen batere erraza izan azken maila honetako sariduna aukeratzea, lan ugari eta oso onak aurkeztu zirelako.

Aurkeztu diren hainbeste lan aztertu ondoren, saritutako batzuk aukeratu ditugu zuen gozamenerako :

* 0 MAILA : AIPAMENAK

a) MIKEL ARZAMENDI :

Realak irabazi
du aurtengo kopa
ta hori ospatzeko
eingo dute topa
Toshakek eman dio
Arkonadari pa
baina Atletikoek
esan dute : tranpa !

Doinua : Gizon arruntarenak

b) LORE AGIRREAZALDEGI :

Atzo nire txean
bakarrik nengoen
eta sala txikian
zarata entzun zen
hurbildu nintzenean
"Mostro" bat zegoen
Lagun egin zenean
jolastu genuen.

Doinua : Xarmangarria

d) IKER PALOMINO :

Osito bat nahi nuke
neretzat, horia
begiak urdin eta
ahoa gorria
hanka txuak zuriak
muturra txuria
tripia lodi eta
burua hirukia.

Doinua : Txuriko

Gaia : SEKULA HOLAKORIK NIK EZ DET IKUSI

Doinua : Hargin andaluza

" Aitak arrantzan dauka
gehiegizko maña
gaur ere bai hartu du
galanta arraina.
Bere gustokoena
dauka amorraina
eta errekan daude
aspertzeko haina. "

" Sekulan holakorik
nik ez det ikusi
esan nion aitari
hain arrain nagusi.
Benetan arrain hori
da nahiko itsusi
ta edertasunean
badu zer ikasi. "

" Igandero joaten da
nire osabarekin
bota karrete eta
kañaberarekin
arrain asko hartzeko
ta etxean jateko
gogo askorekin. "

* 2. MAILA, TXAPELDUNA : LOREA CID ZABALO 12 urte

Gaia : SEKULAN HOLAKORIK NIK EZ DET IKUSI

Doinua : Xarmangarria

1. Igande goiz batean
mendira nijuan
nere txakur gaztea
nuela alboan.
Eskuan makila ta
poltsa bizkarrean
egun zoragarri bat
pasatzeko asmotan.

2. Baserritarrak zeuden
zelaian erdian
txakur gaixo bat hiltzen
belardi gainean.
Gehiago ez jotzeko
esan nienean
txakurra utzi zuten
hiltzeko zorian.

3. Etxera eraman nuen
sendatzeko asmotan
asko sufritzen nuen
bihotz barrenean
Sendatu egin nuen
bost bat egunean
ondo moldatutzen zen
famili artean.

4. Baserritarrak hori
dena ikustean
ta hil behar zutela
entzun nuenean
Nik hil nuen txakurra
minutu batean
eta etzun sufritu,
oin dago bakean.

*4. MAILA, HERRIKO SARIA : ALBERTO AGIRREAZALDEGI

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZAK
(Euskararen erasoei erantzun zorrotzak)
Doinua; Norteko trenbidea.

1. Sarri askotan esaten dugu:
euskara hil zorian dago,
urte batzuek gehiago eta
ahalegin denak akabo.
Halere asko pozik bizi da,
zertan jarri urduriago,
enbido honi erantzuteko
behar da bota "ordago".

2. Euskal Herrian gu euskaldunok
gure etxean arrotzak;
hiru lau hitz entzunagatik
sentitzen du hau bihotzak.
Eraso hauek aurrean beti
ez gelditu erdi motzak,
euskaraz bizi behar badugu
izan gaitezen zorrotzak.

3. Euskaraz jaio, euskaraz bizi,
erdaraz egun osoak;
kalean eta etxean ere
egunero erasoak.
Honen erruak maixuak baino
gehiago du gurasoak.
Ikusten ez duen belearentzat
ipurbeltza du zozoak.

4. "Egun on" "Kaixo" "ondo ibili"
"Agur" eta "gero arte",
euskaraz ez da ezer entzuten
hitz soil hauetaz aparte.
Honen ondoren "no se euskara"
hori da euskal gizarte,
halako gizon-emakumeak
dira gure etxekalte.

5. "Egun on, nor da?" galdetu beti
telefonuko deiari.
"Oiga" "digame", entzunagatik
euskaraz erantzun hari.
Udaltzain eta tabernaria
ertzain edo funtzionari
aurpegi txarra ikusten badut
jarriko gara urduri.

6. Kilometroak Ibilaldia,
Herri Urrats eta Korrika
Nafarroa eta Araba Oinez
euskararentzat botika
Itolarrian bizi da eta
laister hilko da apika,
bizirik iraun nahi badugu
egin zuka edo hika.

7. Euskara gora, euskara behera
dabil ahotik ahora,
politikoek ta jakintsuek
hitz politak beti gora.
Gu beti mutu esan beldurrez :
"badakigu nondik nora".
Neurri gogorrek eska ditzagun
orain eta ez "ahora".

8. Parlamentua Udal etxea
Aldundia, Jaurlaritza,
oraindik ere ez dute jarri
euskaraz heuren bizitza.
Konstituzio hori dela eta
bi hizkuntzaren eskaintza,
beti euskaldunal izan gara,
euskaraz nahi dugu mintza.

Lepasolo

* 4. MAILA, TXAPELDUNA : XABIER AMURIZA

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA

1. Txikitatik entzun dut
ogiri gogorrari
hagin zorrotza behar
zaiola ezarri.
Neurez ez bait nenkien
lege horren barri
probatu nuen eta
bertso hauek jarri.

2. Gabon gaez ogia
bedeinkatzerako
kuzkurra gordetzen dut
hurren urterako.
Lizundu gabe hantxe
egongo da bapo
amorratu ez dadin
zakurrarendako.

3. Behin erabaki nuen :
Aizak hi, zakurra !
Aurten nik jango diat
iazko kuzkurra.
Amorruari leuntzen
baziok muturra
neuretzat ere ez duk
izango makurra.

4. Badaezpada aurretik
gutxitxo agian
ahoa lantzen ekin
nion harrobian.
Hortzak nituelarik
elkar jan zorian
harrian sartzen ziren
baina ez ogian.

5. Gosea duk -zioten-
hortako bikaina
hala barautu nintzen
jakiteko aina.
Jango nuke Deabru
beltzren mingaina
nire aurrera ez da
ausartuko baina.

6. Ogiari amorruz
heldu diot noski
hortzak bertan gelditu
nonbait sartu gaizki.
Baina aitzaki hori
ez izaki aski
kuzkurra irentsi dut
hagin eta guzti.

7. Hatzamarra sartuta
eztulari tira
aho zabalik nago
hutsera begira
Nola ekarri orain
lehen zeuden tokira
bide naturaletik
abiatzen badira.

8. Okin bat ikusirik
atez ate saltzen
eskua bota nion
otarrera zuzen.
Eritzi nion ogi
hain biguna ezen
kuzkurraren atzetik
zurrutean joan zen.


9. Zer ote da gosea ?
Grina ala mina ?
Sabel-sugea ala
buruko sorgina?
Gogortasunik ez da
harentzako dina
hortzak irentsi arren
horzkari berdina.

10. Elgoibarren harturik
gosearen tren
tximistan ibili naiz
esteak barrena.
Bakarrik behar diot
Epaile gorena
ez hortz eta ez sari
amaitzea dena.

Hortzurdin

BITXIKERIAK

VATICANO-KO SAN PEDRO BASILIKAREN BIZKIA



Afrika beltzaren magalean, munduko basilikarik handiena eraikitzeari ekin dio Houphouët-Boigny estatuburu bolikostarrak. Vatikanoko San Pedrokoaren bizkia izango den eraikuntza honek 20 bilioi pezetatako kostua izango du. 1986ko otsailean hasi ziren eta aurtengo udazkenean nahi dute inauguratu. Obraren neurria no-

labait irudikatzeko, aipa dezagun soilik, bere

baitan bilduko dituen 36 beirategi dotoreek, orotara 7.500 m² tako extensioa edukiko dutela, hau da, Europako kolorezko beiraren 2 urtetako produkzioaren haina baino gehiago direla. Lanak, detailerik txikienetan ere, Erromako ereduari jarraituko dio. Guztira, Basilikak 300 mila fededun bildu ahal izango ditu. Eskailerak kontutan hartuz, lerroan jarri eta 12 kilometrotako luzera osatuko genuke. Elizaren alboetan, lurrazpiko 18 kilometro ubidek parke dotore bat ureztatuko dute. Obra erraldoi hau, Bakearen Andra Mariaren Basilika izango da.

PRINTZESAREN KAPRITXOA OTE ?

Azken egunetan, gertaera bitxi eta ez ohizko baten berri jakin dugu.

India aldeko erreinu batetako printzesa bat da, istorio honen protagonista.

Printzesak, italiarren fama ezagutzen zuen nonbait eta, kapritxoa bete nahian, iragarki bat jarri du senargai egokia aurkitzeko asmotan.

Italian agertu den iragarkiak, senargaiak bete beharreko baldintzak eta printzesaren aurrean aurkezteko eguna, ordua eta tokia (Erromako hotel bat), aipatzen ditu.


Italiarra, ezkongabea, fisikoki akatsik gabea eta itxura onekoa izatea dira eskatutako baldintza batzu.

Esan beharra dago, printzesa ere, esaten denez behintzat, ez dagoela gaizki eta gaztea dela.

Zer gertatuko da ? Montaia ala benetazkoa ote da guztia ?

Ondorioen berri, jakin bezain laister emango dizuegu.

ERRETZEARI UTZI : NAHI ETA EZIN



Metodo asko dago, baina seguruena borondatea da. Askotan ikusten ditugu tabakoari buruzko estadistika bildurgarri horiek. Baina zilindro zuri hori gabe zerbait falta zaigu.

Hogei urtetik behera hartzen da erretzeko bizioa. Gero, hogeitamarretik gora, jende guztiak utzi egin nahi dio tabakoari, baina ezin.

Komenigarria ikusten da ekintza konkretuak gazte jendeari zuzentzea. Erretzaileei ere, uzteko aukeran pentsatzen lagundu behar zaie. Ez erretzaileei, berriz, erretze pasiboaren arriskutik babestea ere pentsatzen da.

Belgiarrek, 1992. urtean "Europa ez erretzailea" ospatu nahi dute. Belgikan, 1982 an %40a bere biztanlegoan, erretzailea zen, 1983an %37a, 1984 ean %36 eta 85-86 an %35. 1992 an %27ra jeitsiko dela espero dute.

Gauzak doazen bezala, hemendik 2000 urtera bitartean, 10 milioi europear hilgo dira tabakoagatik.

Espanian, adibidez, 40.000 pertsona hil ohi da urtero tabakoa dela eta. Tabakismoak biztanlegoaren %40 an du eragin zuzena eta %60 diren gainontzekoetan ondorio kaltegarriak ditu.

Tabako-Industriaren interes ekonomikoak dira zalantzarik gabe eragozpenik haundiena.

Espainia munduko tabako kontsumitzailetan buruetako bat da. Bere gain daude: Chipre, Grezia, Kanada eta Estatu Batuak. Baina desberdintasuna haundia da, azken hauetan kontsumoa gutxitzen dagoela eta Espainian, aldiz, gehitzen.

Espainiako Nekazal Ministeritzak 1979. urtean, tabako produkzioa gehitzearen konpromezua hartu zuen. Honela, lehen urtean 12.000 tonelada ateratzen baziren ere, 1985 ean 44.150 tonelada ziren. Gobernuak, subentzio eta laguntza teknikoak eman izan ditu. Extremadura eta Andaluzia izan dira gehien bat lan hau hartu dutenak. Ez al dago formularik langabezia gainditzeko?

Publizitatean berriz, Estatu Espainolean 5.525 milioi gastatu zuten tabako enpresek.

Tabakoaren kontsumoa gutxitu dadin hiru urrats bete behar dira: sendagile eta osasun profesionarien role sentsibilizagarria, lege eta diruzko neurriak, bai eta informazio, prestakuntza eta asistentzia, halaber kontsumitzailearen defentsa eta presio-taldearen eragin etengabea.

Bada desintoxikatzen metodo ugari, baina gehienetan ez dute emaitza onik ematen. Hauexek ditugu ezagunenak:

- . Medikamentuak
- . Akupuntura
- . "Curamelos"
- . Filtroak
- . Terapia Aurikularra
- . Akupuntura digitala
- . Bost egunetako plana

Beste pertsona asko bakarka eta medikamenturik gabe saiatzen da desafio horretan. Batzuk lortzen dute; besteek ez. Egia esan, norberaren borondatea da gartzela horretatik ateratzeko metodorik egokiena.

Plazerra edo ohitura? Kaltegarri izanik zergatik erre?

Halako galderak sortzen dira gizarte hontan bizi izaten garenon artean. Erantzuna norberak bere buruari eman behar edo kontzientziaren lan gogortxo baten bidez lortu behar?

Zeuek duzue hitza, geuk artikulu hontan egin izan duguna, zera da, Elgoibartar jator batzuren iritziak jaso eta zeuen eskuetan laga.




Koldo Aranburu

1.- Erretzailea al zara?

Bai, pakete t'erdi. Hamabost urte erretzen dudala. Hori txarra dela esaten dute; bai gu erre eta erre gabiltza; zergatik den hori? hori da koska.

2.- Toki publikoetan erretzearen aldekoa ala kontrakoa zara?



Ez diot ematen halako garrantzirik. Erretzeak eta ez erretzeak beste maila batzu ditu, gizarte maila da. Adibidez, autobusean bidaia luze bat egiterakoan jendea stressaturik doa eta jende erretzaileak ez erretzea; ba ez dakit. Gainera, debekatzea eta tabakoaren gorakadaren artean kontradizio bat dago.

3.- Zure ondoan dauden ez erretzaileak kontutan hartzen al dituzu?

Noizbehinka ahaleginak egiten ditut.

4.- Inoiz tabakoa uzten saiatu al zara?

Ez, niretzat tabakoa plazerra da.



Bittor Nuñez

1.- Noizean behin erretzen dut, asteburuetan eta gauetan txokorra.

- 2.- Berdin dit, debekatuta egon behar da baina neri berdin dit.
- 3.- Niretzat hori pixkat exajeratu egin dute, trenetan bagoi ezberdinak e.a., gehiegi da. Ondo dago baina ...
- 4.- Baina nik tabakoa ez dut sekula erretzen, bakarrik fariasa astebukaeratan.



Nerea Lariz

- 1.- Normalean ez, asteburuetan bai nahiko edaten dudanean. Badirudi edaria eta tabakoa loturik doazela.
- 2.- Tokiaren arabera, adibidez autobusetan, trenean, e.a.
- 3.- Bai.
- 4.- Noizean behin erretzen dudanez, ez dut inoiz pentsatu guztia uztea.

Eroskiko langile bat

- 1.- Utzi nuen. Bost urtetan zehar "a tope" erretzen nuen; errubio pakete bat egunero.
- 2.- Zein metodo jarraitu duzu uzteko?
Pentsatu eta utzi.

- 3.- Toki publikoetan debekatzearen aldekoa naiz. Erretzaileek batzutan traba egiten didate eta ez erretzeko esaten diet.
- 4.- Eroskin debekaturik al dago?

Bai, baina hala ere gutxi batzu erretzen saiatzen dira. Orain gehiago kontrolatzen da baina halere abusua ematen da.




Jon Lizarralde

- 1.- Ez, nire bizitza osoan hamar ez ditut erre.
- 2.- Debekatzea hitz gogorra iruditzen zait baina niri ez erretzea gustatzen zait; askotan kalte egiten dit tabakoaren keak.
- 3.- Albokoari ez erretzeko esaten al diozu?
Bai, traba egiten didala esaten diot.

Kartero eroa

- 1.- Bai, ostiral, larunbat eta igandetan bi pakete, baina astegunetan ezer; tabakoa, edaria, martxa eta lagunekin batera doa.
- 2.- Debekatzearen aurka nago.
Ez naiz konturatzen, zigarroa hartu eta ala ...
- 4.- Ez, erretzea marabila bat da.



Bazen behin batean Gombei izeneko gizon bat. Behartsua eta inozo samarra zen. Bakarrik bizi zen borda batean. Inozoa zelako, inork ez zuen berarekin ezkondu nahi.

Arratsalde batez neskatila batek jo zuen haren atean eta gaua haren bordan pasa zezakeen galdetu zion. Gombeik ez zuen egundo halako emakume ederrik ikusi. Horregatik biziro poztu zen barrura sartu zenean. Gau hartan, afalondoan, honela esan zion emakumeak:

"Bakarrik bizi zarela ikusten dut. Ni ere bakarrik nago. Emaztetzat hartu nahi al nauzu?"

Gombeik ezin zuen bere adur onean sinetsi. Beraz, ezkondu egin ziren.

Ezkontzak oso zoriontsu egin zuen Gombei, baina zailtasun galantak ere izan zituen bere lanak burutzeko. Bere emaztetxoaz hain maiteminduta zegoelarik, ezin zituen begiak harrangandik kendu, ezta une batez ere. Kainamuzko sandaliak egiten zituenean, askotan konturatzeke bost edo sei oinen neurrikoak irteten zitzaizkion, zeren begiak bere emaztearengan jarrita bait zeuzkan eta ez bere lanean. Laztozko zirak egiten zituenean, askotan hamar edo hogeai oinetakoak izaten ziren, zeren nahiago bait zuen bere emaztea zer egiten ari zen ikustea berak egiten zuenari arreta jartzea baino. Bere sandaliak eta zirak ez zuten inorentzat balio.

Orduan soroetara joaten zen lanera. Minutu gutxi batzu pasa orduko, etxera etorri ohi zen korrika, oihu eginez:

"Hor al zara ene maitetxo?"

Horrela bada, ez zuen ia ezertxo ere egiten egun osoan.

"Hau ez da burubidea", esan zuen berekiko bere emazteak. Joan zen bada, hirira eta artista bati bere erretratua egiteko eskatu zion. Eraman zuen etxera eta Gombeiri esan zion:

"Hemen duzu nire erretratua. Jar ezazu zintzilika hurrengo arakatzondoan. Soroan ari zen bitartean begiratzen badiozu, ez duzu hainbeste nire beharrik sumatuko".



Gombeik emaztearen esana egin zuen. Minutu gutxi batzu pasa ondoren, lanari utzi eta bere emaztearen erretratuari begiratzen zion, baina ez zen lehen bezain sarri bere etxera korrika joaten.

Egun batean, ordea, bapateko aize-bolada batek eraman zuen erretratua, zeru aldera altxatuz. Gombei saiatu zen harrapatzen, baina berehala galdu zuen begi bistatik. Negar saminez, Gombei etxera joan zen lasterka bere emazteari esatera.

"Ez dio axolarik, ene senarra - kontsolatu zuen emazteak -. Hirira joango naiz beste erretratu bat egin diezadaten, gero zuri emateko."

Bienbitartean lehen erretratoa airean hegarka joan zen, azkenik jauregi bateko lorategian erori arte. Erretratua ikusi bezain laster, jauregiko jauna erretratuko emakumeaz maitemindu zen.

"Erretratua baldin bada, pertsona egon behar du nonbait", pentsatu zuen berekiko; horrela bada, ordena eman zien bere mutilei emakume hura bila zezaten eta lehenbaitlehen ekar ziezaioten.

Mutilak herriz herri joan ziren erretratuarekin, norbaitek emakume hori ezagutzen zuen galdetuz. Azkenean, Gombei bizi zen herrira iritsi ziren.

"Emakume hau ezagutzen al duzue?", galdetu zioten herriko jendeari, erretratua erakutsiz.

"Ah bai, Gombeiren emaztea da", erantzun zuen herriko jendeak erretratua erakutsi orduko.

"Geure jaunari eraman behar diogu", esan zuten, eta emakumea eraman nahian hasi ziren.

"Mesedez, ez ezazue eraman", erregutu zien Gombeik; baina haren erregu guztiak alferrika-koak izan ziren. Negarraren negarrez, haren malkoek oin bateko sakonera zuen urmahela egin zuten.



"Ez egin negarrik, Gombei", esan zion emazteak. Orain ez daukagu ezer egiterik, baina entzun. Urte Berri bezperan jauregira etorri behar duzu, eta zatozenez, ekar itzazu pinuak Urte Berritan sarrerako atea apaintzeko. Orduan elkar ikusteko aukera izango dugu eta dena ongi irtengo da.

Ezer esateko astirik gabe, jauregira eraman zuten emakumea. Egunak joan, egunak etorri, Gombeik uste zuen hara joateko garaia izango zela ordurako. Azkenik, norbaitek esan zion Urte Berri bezpera zela. Jauregira abiatu zen, bizkarrean pinu sorta handia zuela. Laster ikusiko zuen berriro bere emazte maitea:

Jauregiko ateetara iritsi zenean, oihuka hasi zen:

"Pinuak, pinuak! Pinu finak Urte Berritarako!"

Jauregi barrutik entzun zion emazteak eta irribarre egin zuen. Huraxe zen lehen aldia irri egiten zuela jauregira eraman zutenetik. Jauregiko jauna oso pozik jarri zen emakumea hain kontent ikustean, eta pinu-saltzaileari deitzeko ordena eman zien zerbitzariei.

Gombei agertu zenean, are eta kontentago jarri zen haren emaztea. Eta hain malizioski makurtu zen haren aurrean non jaunak honela pentsatu zuen berekiko:

"Pinu-saltzaile bat horren atsegín bazaio, neu ere horietako bat bihurtuko naiz."

Jantziak berekin trukatzeko agindu zion Gombeiri. Pinu-saltzaile bezala arlote jantzirik, lorategian gora eta behera paseatzen hasi zen, oihuka:

"Pinuak, pinuak! Pinu finak Urte Berritarako!"

Horrenbestez Gombeiren emaztea askoz kontentago jarri zen. Bere eskutxoekin txaloak jo eta barre egiten zuen lainoki. Jauna hain pozik zegoen emakumea barrezka ikustean, non dantzan hasi baitzen lorategian, pinuak bizkarrean zituela.

"Pinuak, pinu finak!, oihu egiten zuen behin eta berriro. Dantzan segitu zuen lorategian zehar eta horrela jauregiko ateetatik kanpora irten zen ia konturatu gabe.


Kanpora irten bezain laster, Gombeiren emazteak jauregiko ateak ixteko agindu zien zerbitzariei. Une baten ondoren, jauna konturatu zen ez zegoela lorategian. Hurbildu zen jauregiko ateetara eta harri eta zur gelditu zen itxita zeudela ikustean.

??

test psikologikoa



Sex-appeal



NORK DUEN ETA NORK EZ

1. Aurreko etxeko leihotik norbait begira duzula konturatu zara.
 - a) Segituan ixten dituzu errezelak.
 - b) Erdi bilutzik paseatzen zara leiho aurrean.
 - d) Ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzen duzu.

2. Zein da zure erreakzioa erakustoki edo ispilu baten aurrean pasatzean.
 - a) Disimuloz, baina begiratu egiten duzu.
 - b) Disimulorik gabe begiratzen duzu.
 - d) Jaramonik egin gabe jarraitzen duzu aurrera.

3. Oraindik ezezaguna duzun beste sexuko pertsona batekin zita duzu. Zein seinale aukeratzen duzu elkar ezagutzeko ?
 - a) Aldizkari apropos bat.
 - b) Detaile bat jazkeran.
 - d) Zure automobileko matrikula.

4. Denboraldi batez ahaztuxea izan duzun lagun batekin harremanak izan nahi dituzu berriro ere. Zer duzu nahiago.
 - a) Telefonoz deitzea.
 - b) Telegrama bidaltzea.
 - d) Ustekabean bisita egitea.

5. Zein motako ehuna zaizu ikuitzeko atsegina ?
 - a) Seta.
 - b) Larrua.
 - d) Kotoia.

6. Aukera ezazu mozorro-dantza baterako maskara :
 - a) Arabiara ala "Odaliska" .
 - b) Bizarduna ala ijitoa.
 - d) Zalduna, ala aintzinako anderea.

7. Zirrara sortzen dizun pertsona bati begiratzean.

- a) Iheskor eta maliziati begiratzen diozu.
- b) Bildurtti, baina adi-adi begiratzen diozu.
- d) Sano-sano begiratzen diozu.

8. Gaupasa batean afari dotore batera lehenengo aldiz zoazenean,

- a) Jaten ari zarenari jaramon handirik egin gabe jaten duzu.
- b) Ia dastatu ere egin gabe eskatzen duzu janaria.
- d) Gehien gustatzen zaiakizun janariak gozatzen dituzu.

9. Trenean zoazela, zure maleta erori eta barruan daramazuna sakabanatzen zaizu. Zer izkutatzen duzu lehenengo ?

Emakumezkoak

- a) Konpresak
- b) Desodorantea
- d) Ruloak

Gizonezkoak

- a) Preserbatiboa
- b) Desodorantea
- d) Ilikeo lozioa

10. Animalia birjaioa bazina, zein aukeratuko zenuke ?

- a) Zisnea.
- b) Arranoa.
- d) Pantera.

11. Zuri gustatzen zaizun pertsona hori, sinpatia biziz zuzendu zaizulehenengo aldiz. Zein da zure erreakzioa ?

- a) Irribar atsegina.
- b) Lotsaz gorritu eta purrustada batzu egitea.
- d) Ez ohartuarena egitea.

12. Gogokoa zaizun pertsona batek zigarroa pizten dizu.

- a) Segituan bere eskua ikutzen duzu.
- b) Ez duzu inola ere ikutzen.
- d) Bere eskua hartu eta zeuregana hurbiltzen duzu atseginez.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

- a) Ligeroa
- b) Sostena

Gizonezkoak

- a) Elefantedun galtzontziloak
- b) Kamiseta

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gona

Gizonezkoak

- a) Elefantedun galtzontziloak
- b) Kamiseta
- d) Lepoko zapia

14. Zer tatuaiia egingo zenuke ?

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

15. Zure esku-ematea nolakoa da ?

- a) Indartsua eta luzea.
- b) Leuna eta lasaia.
- d) Azkarra eta lehorra.

16. Gogoko zaizun pertsona batekin hitzegitean ,

- a) Biziki eta erreztasunez hitzegiten duzu.
- b) Doinu baxu eta sarkorra erabiltzen duzu.
- d) Ez duzu zeure betiko doinua aldatzen.

17. Zein da zure itxura, zure ustez ?

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

18. Zer jarrera hartzen duzu eseritzean ?

Emakumezkoak

- a) Oinak antxumatuta
- b) Hankak antxumatuta
- d) Oinak eta hankak elkarren kontra


Gizonezkoak

- a) Hankak zabalik.
- b) Zango bat bestearen belau-naren gainean
- d) Oinak eta hankak elkarren kontra

19. Pertsona atsegina batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

TXITXILIBAKIO TXIKI.



6. mailako ikaste elgoibartarrek egina.

— 2. aldea —

- 1 -

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

Gizonezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

Deinua ama begira zozu
Gara taitxibakie

CC-100/k

14. Zer tatuai

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

1.
Taitxibakie
da rebista edena
eta bertan azaldu
egiten da dena
la la la la
egiten da dena } BIS



15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

2.
Bertxo renbora pasak
azaltzen dira hor
merez du hartzea
Ehun pezetan zoz
Pa Pa Pa Pa
Ehun pezetan zoz } BIS

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

3.
Ez duzu kempareko
problema arbasatzen
lasten azaldu koda
hau ere horrekin } BIS
ta ta ta ta
hau ere horrekin }

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

18. Zer jarrera

- Emakumezkoak
- a) Oinak antxu
 - b) Hankak ant
 - d) Oinak eta
kontra

4.
Bikati da bertan
dena azaldu
onain ta egiten
guztuen ta mik
la ta ta ta
guztuen ta mik } BIS


-2-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?


- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

Iosu Tejero
ANA ARMIAARMA

Orain dela urte asko, arriarona bat biri zen. Ana zuen izena, baina oso kontua zen. Hain tantua zen, zeren, behin auto bati zankadilla ipini nahi zion, eta 4 banka gabe gelditu zen. Horregatik beste arriaronek bere kontura garra egiten zuten. Orduan, maskaturirik hirira joatea erabaki zuen. Ete batean sartu zen, baina handik gutxira irten zen, zemen, lan D.D.T. botatzen zuten.



Beste etxe batean sartzerakoan, arriarona zahar bat eragutu zuen, zaharra ezereik oso jakintsua zen, eta ez zen arriaronez jare egiten. Arriarona zaharra harrira zuen izena, eta gansa mardo bat erakutsi zion Anari: zerbaiten, konketak egiten biditzen etab. Oso laqueak egin ziren eta elkarrekin 20 urte pasa zuten. Gero Anak bere herria itzuli zen. Han, arriarona txikiak gausak irakasten zitkien. Herriaronek, hain jakintsua zela ikusterakoan, beraien erregina egin zuten. Eta horrela Ana arriaronek zarentzu pasa zuen bere bizitza guztia.



25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

n, azkena

tu duzu. Az-

ako bat oso

ekin
onenaren

kin

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

Gizonezkoak

"Gaia": Txitxilibakio aldirakaria.

"Doinua": LoriaK udan ihintza

"Egilea": Maite Arregi

14. Zer tatuai

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

1) Txitxilibakio aldirakaria

da oso interesgarria, bertsoz eta asmakizunekin beteta daude orriak.

Prestatzeko eduki behar da gehigarriko pazientzia,

baina jendeak irakurtzen du gehienetan aldirakaria.

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

2) "Doinua": Pasarako Plazatik
"Gaia": Oporrak

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

oporrak heltzen daude joateko hondartzara, euria egiten badu ere prestatzen.

18. Zer jarrera

- Emakumezkoak
- a) Oinak antxu
 - b) Hankak ant
 - d) Oinak eta
- kontra

Lagunak bildu eta batzutan mendira, eta beste batzutan gogor jolastera.

-4-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

Bila ezazu
 zazpi nekta
 izena.

H	E	Y	E	N	I	R	V	S	U
L	I	A	I	S	B	Z	R	T	G
M	O	R	B	F	A	S	V	F	A
R	A	P	E	C	N	G	S	M	Y
Z	D	V	O	N	A	K	A	D	E
T	N	G	R	E	L	H	N	B	R
A	A	T	Z	R	K	P	Q	Z	I
L	E	I	R	E	E	O	I	J	M
O	B	H	R	A	N	S	T	V	A

Ana deyaradi
Maria Kumbel
Vanessa Baza

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

n, azkena

tu duzu. Az-

ako bat oso

ekin
 onenaren

kin

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

Gizonezkoak

IGARKIZUNAK

14. Zer tatuai

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

Goma luzea du, mihia hotza
umutitik entzuten da
haren kantu hotza

(Kampax)

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

Amma joko orduko
alaba kalean

(Keta)

Beti geldi
beti urduri
io egumez
eta gumez dantzari

(Larra)

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

Txistak

* Bikote bat operan daude eta halako batean emakumeak gizonari besoa jotzen du eta esaten dio

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

- Begira, mozolo hori xetan dago

- Eta hori esateko esnatu nauru

18. Zer jarrera

Emakumezkoak

- a) Oinak antxu
- b) Hankak ant
- d) Oinak eta
kontra

~~Ana Perez~~

~~Mate Japa~~

~~Alicia Gómez~~

~~Rosa M. O~~

-6-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

Jaxinta, gure ur tanta.

Jaxinta, ur tanta bat zen eta koba batetan bizi izaten zen
Gure Jaxinta eguzkia ikusi nahi zuen, koban ilun-ipurua zegoelako,
baina bere amak ez zion lagatzen.


Behin, Jaxinta kobatik joan zen eta beste tantekin elkartu zen,
geroago eguzkia ikusi zuen baina ibaia ere bai, eta hain zikina
zegoen...!

Tuberien barrutik sartu zen urtegi batetara joateko eta handik
Joxe eta Ohianaren etxera. Hemen umeek Jaxintan izotza bihurtu
eta balakoiak ipini zituen. Hemen, Purrura bihurturik Jaxinta zerura
igo zen.

Gauetan, haizeak hodeiak bufztatu zituen eta mendi goreneri eraman
zuen eta gure Jaxinta eturra bihurturik Purrura jausi zen. Zupo batetatik
sartu eta, hau sorpresa! Koban aurkitu zen bere ama eta amak.

Jaxintak bidai asko egin zuen baina hori beste ipuina izango da.

AMAI A



Penelope

-?-

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

Gizonezkoak

" Gaia! Gure herria, beti gurria.
" Doinua! Triste bizi naiz

14. Zer tatuaia

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

Oilarrak abokatu

hau deli komeria,
erpe ibil zarteste
dator mixeria.

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

Tiroz hilko zaituzte
Pello ehiztariak
eta gure herria
beti da gurria.

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

Gure herria denez
saindu gure hizkuntza,
Euskalerrria dela
ez izan zalantza.

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

Moskorra hartu eta
ibili balantza,
eta etxean bero
jan makailu saltza.

18. Zer jarrera

Emakumezkoak

- a) Oinak antxu
- b) Hankak ant
- d) Oinak eta
kontra


-8-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

ZENBAKI JOKOA

Zein zenbaki falta da?



-9-

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

Gizonezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

14. Zer tatuai

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

18. Zer jarrera

- Emakumezkoak
- a) Oinak antxu
 - b) Hankak ant
 - d) Oinak eta
kontra

Langile ta alferzale
 demetikan dago
 Euskarra saskim eta
 erderaz egimgu
 Egumero ditugy
 lamak eta bromkaki
 eta horrez aparte
 ederrak zigorrali
 Seigarrem mailan dauka
 mesha mutil mahiko
 subitak gutxite
 montecak asko
 Egumero dago la
 taurata tabazra
 marisuek behar dute
 gogozko esurra
 Gaue - Seigarrem mailak ikasleak
 Deitur - Dima begina zara

-10-


19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

20. Bereziki...

n, azkena

NORA DOA PEDRO?



ZER IPINTZEN DU HEMEN?

Handwritten signature

Beatriz

Maia

Pire

tu duzu. Az-

ako bat oso

ekin

onenaren

kin

-11-

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

Gizonezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

BERTKOAK

14. Zer tatuai

GAIA: "Eukara"
DOINU: Triste bizi maiz eta...

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

-1-

Mesedez eskaldunak
hitzegia eukaraz
ez zaituztet nahi zuek
ikusirik erdaraz

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

gu arduratu behar
gara, gure hizkuntzaz
nahitza lan hau ez izan
egiteko erraz

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

-2-

Momentu honetatik
behar dugu hasi
eskaldunak erdaraz
da oso ikusi
ez baldin badakizu
arduan ikusi
ka zuek eukaraz
zaituztetan ikusi

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

18. Zer jarrera


- Emakumezkoak
- a) Oinak antxu
 - b) Hankak ant
 - d) Oinak eta
kontra

EGILEA: Oihana Etxabe

-12-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.



ZE BIDE HARTU BEHAR DU TXITXILIBDKIOK?

deire

Beakitz

Amara

Amara

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

Gizonezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

14. Zer tatuai

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze

17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

18. Zer jarrera

- Emakumezkoak
- a) Oinak antxu
- b) Hankak ant
- d) Oinak eta
- kontra

Ixistek

- Aizur !, eta jabea ?

- Korputzantun dago !

- Eta, noiz etorriko da ?

- Ez jakit, Kajaeren baruan zihuan.

- Kapitua Kanaer esaten die bere itaquirizonei

- Goixorak ! jehai orazue baka !

Eta goixorak auzi gabe geratu ziren.

Yaboo Boyudo

Carlos Perez

Jose Amago

Rafael Garcia












-14-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

20. Bereziki batzutan zaudela, zein da arropak erzteko, azkena

BILA EZAZU
11 GAUZA
HAUEK

	I	L	A	R	G	I	A	H	R		
	H	I	T	H	O	A	T	E	S		
	B	A	T	E	A	O	S	L	P		
	A	S	T	H	P	P	B	I	S		
	R	A	T	S	A	N	A	K	S		
	R	S	P	A	I	L	R	O	S		
	A	O	A	S	O	A	K	P	S		
	S	F	T	X	E	R	O	T	K		
	K	O	R	I	A	H	A	E	A		
	I	I	A	T	E	K	A	R	T		
	L	A	S	O	U	E	A	O	O		
	O	H	P	A	I	O	L	A	D		

tu duzu. Az-

ako bat oso

ekin
onenaren

kin

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

13. Gaupasa berezi baterako prestatzen zarenean, zein jantzi duzu derrigor eraman beharrekoa ?

Emakumezkoak

- a) Ligerao
- b) Sostena
- d) Azpiko gon

Gizonezkoak

14. Zer tatuai

- a) Sugea.
- b) Bihotza.
- d) Izena.

15. Zure esku-em

- a) Indartsua
- b) Leuna eta
- d) Azkarra et

16. Gogoko zaizu

- a) Biziki eta
- b) Doinu baxu
- d) Ez duzu ze


17. Zein da zure

- a) Txukuna.
- b) Fina.
- d) Airosoa.

18. Zer jarrera

- Emakumezkoak
- a) Oinak antxu
 - b) Hankak ant
 - d) Oinak eta
- kontra

Txitxilibakio - Txiki ENEKO de lu Ho



-16-

19. Pertsona atsegin batekin hizketan ari zarekarik behin eta berriro eta goxo-goxo ikutzen duzu ?

- a) Ez, inoiz ez.
- b) Bai, askotan.
- d) Batzutan.

20. Berarekin bakarka zaudela, zein da arropak erztean, azkena kentzen duzuna ?

Emakumezkoak

- a) Sostena
- b) Kulerokoak
- d) Hiletako gantxoak

Gizonezkoak

- a) Kamiseta
- b) Galtzak
- d) Galtzetinak

21. Zein oinetako mota dituzu gogokoen :

Emakumezkoak

- a) Eskoteduna
- b) Sandaliak
- d) Botak, botinak

Gizonezkoak

- a) Kordoidunak
- b) Borzegiak
- d) Mokasinak

22. Maite duzun pertsonarekin bakarka hitzegitea lortu duzu. Azkenean. Zer gai aukeratzen duzu hasteko ?

- a) Bapateko zerbait
- b) Gaur egungo zerbait.
- d) Zerbait pertsonala.

23. Lagun talde bat mahaira hurbildu eta gonbidatuetako bat oso atsegina dela konturatu zara. Non eseriko zara ?

- a) Bere ondoan.
- b) Bere aurrean.
- d) Mahaiaren beste muturrean.

24. Hauetako norekin ez zenuke maitemintzerik nahi ?

Emakumezkoak

- a) Zure ginekologoarekin
- b) Zure lagunik onenaren senarrarekin
- d) Play boy batekin

Gizonezkoak

- a) Emagaldu batekin
- b) Zure lagunik onenaren emaztearekin
- d) Neskame batekin

25. zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.

SEX - APPEAL

25. Zein toki aukeratuko duzu lehenengo zitarako ?

- a) Museo bateko sarrera.
- b) Taberna apal bat.
- d) Herriko parkea.

26. Liluratu nahi duzun batekin ari zara afaltzen. Koparen ertze-
tik pasatzen duzu behatza

- a) Behin eta berriro.
- b) Oso gutxitan .
- d) Sekula ez.

PUNTUAZIO TAULA

	1	2	3				PUNTUAK
1	A	B	D	14	A	B	D
2	D	B	A	15	D	B	A
3	D	A	B	16	A	D	B
4	D	A	B	17	B	D	A
5	D	A	B	18	D	B	A
6	B	A	D	19	B	A	D
7	D	A	B	20	A	B	D
8	A	D	B	21	B	D	A
9	A	D	B	22	B	A	D
10	B	D	A	23	D	A	B
11	D	A	B	24	B	D	A
12	B	D	A	25	D	A	B
13	B	D	A	26	D	B	A

18tik 33ra

34tik 48ra

49tik 63ra

64tik 78ra

Sex-appeal eskasa,
ia batere ez.

Halamoduzko
sex-appeala.

Sex-appeal
ona..

Aparteko sex-
appeala. Sexu ara-
zoetan Atila zara
Zeure mende ditu-
zu denak. Suerte
ona izan eta osa-
sunez urratu !

ENTSAIA TA ENTSIAIA, PARATU GABE...

Elgoibarko rockeroek ez dute etsitzen. Arestian atera berria den TRENBIDE rock taldea dugu adibide garbi bat. Musikaren zirrarak bildu du laukotea eta gogoz ekin diote lan honi. Trinitate jaietan izan genuen beraien musikaz gozatzeko lehen aukera. Talde hau hobeto ezagutzeko asmotan, entsaiu tokira hurbildu ginen. Hemen doakizue ondorioak.

TX.: Zeintzuk osatzen duzue talde berri hau?

TR.: Luis Miguel Diego "Mitxi" (kitarra), Gabriel Agirregomezkorta "Gabi" (kitarra), Roberto Garzia (bateria) eta Alfonso Guillo (bajista). Eta abestu Gabik eta Alfonsok egiten dute.

TX.: "KOSKA" ren jarraipena al zarete?

TR.: Ez, guk ez dugu herentziarik hartzen eta KOSKA ren jarraitzaileak ez gara. Gu gara gu. Sasoi batean "EXPRESION SONORA" sortu genuen, gero "KOSKA" eta berbenetan ibili ginen. Oraingoan, berriro elkartu gara eta beste izen bat asmatu dugu. Alde horretatik izan daiteke jarraipen bat, hau da, igarri egingo digute geu gabiltzala.

TX.: Azken batean izen aldaketa bat besterik ez al da izan?

TR.: Ez dakigu, estilo aldetik ez dugu uste KOSKA ren jarraipena denik, hori detaile askotan somatzen dugu. Bestalde, kanten egitura klasiko bat darabilgu. Kanta batzuk jendeak entzun eta errez errepikatze-koak dira eta beste batzuk rythm'n blues estilokoak, eta hortxe mugitzen gara, rythm'n blues-etik rock pop-era.

TX.: Nondik sortu da "TRENBIDEA" izena?

TR.: Ez genekien ze izen ipini eta Gabik asmatu zuen. Oso gaitza zen denon gustoko izen bakar bat aurkitzea, eta izen horrekin denok konforme geunden. Soinu polita dauka eta oso izen erraza da.



TX.: Ze musika estilo jotzen duzue?

TR.: Behin baino gehiagotan galdetu digute hori, baina ze estilo den zehaztea oso zaila da. Eragin ezberdinak daude: jazz, rock, rythm'n blues ... baina ezin dezakegu esan horietako bat konkretuki denik. Eskema klasiko bat dugu. Erabiltzen dugun instrumentazioa klasikoa da: bateria bat, baxu elektriko normal bat eta kitarrak; tekla-rik ez daukagu eta horrek nahitaezko marka bat ematen digu.



TX.: Abestiak bertsoak ala zuen produkzioak izango al dira?

TR.: Gehienak gureak izango dira. Hamar kantu gureak eta bost bertso. Konbinazio bat egin nahi genuen, horregatik geure musika hartu dugu eta baita ere guri gustatzen zaizkigun beste kantu zahar klasiko batzuk. Ez goaz inolako berrikuntzarik egitera.

TX.: Euskaraz abesten al duzue?

TR.: Bai, baina hori trankil, ez bandera bezala. Aukeratu ditugun abesti klasikoak ingelesez dira eta horrela kantatuko ditugu. Beste kantu guztiak, erderazko bat izan ezik, euskaraz dira.

TX.: Nori zudunduriko aktuazioak izango dira?

TR.: Estiloa bezala, auskalo!
Irratia jarri eta estilo guztietako musika entzuteko aukera dago, 65 eko musika, 70 ekoa, 80 koa, oraingo beste linea batzuk eta dena nahasia. Baina entzulegoaren go-goak nondik doazen ez dakigu.

TX.: Dirulaguntzarik?

TR.: Bat ere ez, ez dugu eskatzen eta jaso ere ez. Gastuak ordaintzeko aktuazio bat eskatzen dugu subentzio gisa, hau da, lanaren truke diru bat. Subentzio asko baino hobea da azpiegitura hobea izatea, esate baterako, lokal honek ez dauka bentilaziorik eta hemen askotan hondatu zaizkigu instrumentoak. Lokal hau hilean 11.000 pta. ordaindu behar izan dugu eta beharturik gaude aktuatzerara. Uda honetan hiru aktuazio egiten baditugu, zorrak kitatzeko moduan gaude eta berriz ere lasaitasuna. Gure aldetik gauzak trankil hartu ditugu;

ondo irtetzen bada, oso ondo.

TX.: Diskorik grabatzeko asmorik ba al duzue?

TR.: Datorren urtean, orain ez dugu horretan pentsatzen, orain eszenatokiak kezkatzen gaitu eta eszenan agertzea nahiko lan handia da, agian diska bat egitea baino lan handiagoa. Hasieran, single bat atera nahi dugu eta horrela gustuko bi kanturen bidez taldea promozionatu. Jendeari interesatzen bazaio, beste single bat aterako dugu.

TX.: Rockero zaharrak ez al dira inoiz hiltzen?

TR.: Rocka nahiko zaharra baina berria da. Jende gaztea rockabilly jotzen hasi da eta oso rock zaharra da. Ez dago edaderik Rock and Roll-arentzat. Rock-ak badu funtzio bat, nolabait dibertsioarekin lotzen da. Horrekin batera doaz salmentak, sloganak, ideologiak, e.a. Musika hori gustatzen zaigu jotzeko eta ondo pasatzeko. Gero, bakoitzak, bere mugak jarriko dizkio.

TX.: Aktuazioen egitarau konkreturik ba al duzue?

TR.: Taldea ezaguna egin arte zaila da aktuazioak lortzea. Zirkuito bizioso bat da, lanik ez baduzu ezin duzu lanean dakizunik adierazi, eta lanean hasten zarenean kritikak, juizioak, e.a. Rock Jaialdiak soilik izango dira eta ez berbenak. Eta gu ez gara alternatiba izango baizik eta beste talde bat entsaladarako. Uda honetan ez gaituzte asko ezagutuko baina beharbada irten daiteke zerbait, hain zuzen, orain desagertu da ltoiz taldea eta hor ere beste zulo bat bete beharra dago.

“KOLOREAK ERE NORTASUNAREN ISPILU”

Ba al dakizu koloreek nortasunaren berri jakiteko aukera ematen dutela?
Zihurtatu nahi izanez gero, ausartu zaitez test hau egitera.

Bi aldiz pentsatu gabe, hamaika kolore hauen artetik gustokoen dituzun bi aukera itzazu eta atzeraka egiten dizkizun beste bi. Ondoren, zuri dagokizun adierazpena bila ezazu.

HORIA :

Gustatzen zait: Gaztetasuna nabari duzu. Experiencia berrietara irekia zaude baina berekoia zara. Zure hitz jarioaz jendea liluratzen duzu, arlo askotan aldakorra izan arren.

Ez zait gustatzen: Etilista samarra zara. Masifikazioak beldurtzen zaitu eta besteekin konpara zaitzateela gorrotatzen duzu.

URDINA :

Gustatzen zait: Mugimendua gustatzen zaizu. Bidaia amorratua zara, eta zenbat eta bidaia luzeagoak hobe. Batez ere, zure askatasuna defendatu eta mantentzen duzu.

Ez zait gustatzen: Huskeria eta ergelkeria gorrotatzen duzu. Fina eta heldu samarra zara.

BELTZA :

Gustatzen zait: Zuhurra zaren arren, denengaitetik nabarmentzea gustatzen zaizu. Onartzen ez baduzu ere, ospe eta gizarte maila altu bat lortzea nahi duzu.

Ez zait gustatzen: Gangarra zara, eta aurrerakoia. Legeak errespetatzen dituzu, nahiz eta zeharo bete ez.

GORRIA :

Gustatzen zait: Huskerietan ez duzu denborarik galtzen eta zuzenean harira zoaz. Leiala, aktiboa, aginduna eta odolgaizto samarra zara.

Ez zait gustatzen: Lotsatia zara eta besteen eritziak beldurtzen zaitu. Gogorkeriak ikaratzen zaitu.

ROSA :

Gustatzen zait: Goxoa, sentibera eta maniatikoa zara. Cai espiritualak interesatzen zaizkizu. Batzutan ez zara oso ulerkorra.

Ez zait gustatzen: Erdizkako gauzak gorrotatzen dituzu eta baita ere geldi egotea. Oso mordermua zara eta zure eginkizunetan konkretua zara.

ZURIA :

Gustatzen zait: Izatez alaia, baikorra eta bizitzaren maitale sutsua zara. Zuzenki jokatu duzu eta nabarmentzea nahi duzu.

Ez zait gustatzen: Egoera larrietan atzea ematea nahiago duzu. Maitasuna eta sexuari dagokionez, aldaketak eta zirarrak erakartzen zaituzte.

GRISA :

Gustatzen zait: Ezezko samarra agertzen zara. Eta zure sorte txarraren errua patuari ezartzen diozu. Zure buruarekiko oso gogorra eta suminkorra zara.

Ez zait gustatzen: Bizitzaren aurrean adoretu agertzen zara, eta ez diozu besteen eritziari garrantzirik ematen. Martxa eta mugimendua doazkizu.

MARROIA :

Gustatzen zait: Besteen adorea eta laguntza behar duzu, nahiz eta adierazi ez. Konfidantza gutxi duzu zure buruarengan.

Ez zait gustatzen: Oso aktiboa zara. Zure adiskidetasuna muga gabe eskaintzen duzu. Aitakor samarra zara.

LARANJA :

Gustatzen zait: Jendearekin egoten dakizu, baina bakardadean natura bizitzea nahiago duzu.

Ez zait gustatzen: Zuzena eta disziplinatua zara. Desordena eta nahastea gorrotatzen duzu, baita ere besteen bizitzan mutur sartzea.

BERDEA :

Gustatzen zait:

Pentsakorra eta gai guztietan oso sakona zara. Ez zaitu bakardadeak kezkatzen eta zure lagunak ondo aukeratzen dituzu.

Ez zait gustatzen: Modernotasunak zorutzen zaizu, baina sofistikatuegia zara. Lardaskeriak gorrotatzen dituzu.

MOREA :

Gustatzen zait:

Goi mailako gaiak interesatzen zaizkizu. Izpiritualtasuna eta lasaitasuna behar duzu inguruan.

Ez zait gustatzen: Pertsona konplexu, marmartasuna baloratzen duzu eta konfidantzako pertsona zara.



"A.E.K." PIL PILEAN



KORRIKA herritik pasa zen eta bere inguruan dagoen A.E.K.-ren egoera ezagutzeko, hemen duzue galdera-erantzun sorta.

1. Zein izan da aurtengo KORRIKA-ren zuen balorazioa? Herriaren erantzuna nolakoa izan da?.

Egon den boikota eta giro politikoa ikusita, oso harrera ona izan du. Gauza bereziak gertatu dira; batzuk eskatzera joan eta ea karta bonba den galdetu, baita sosik eman ez, zenbait denda eta entepresetan boikota garbi ikusi da. Baina hala ere herria orokorrean portatu da. Salbuespenak salbuespen izan dira.

Inoiz baino hobeto ateratu da; jendearen inplikazioa ... Beno ikasleen aldetik beti egon da inplikazioa aurreko edizioetan,

eta larunbata tokatu zelako jende gehiago egon da herrian.

Alderdi ekonomikoa beste urteetakoaren antzerakoa izan da. Beharbada aurten eman ez dutenak beste urte batzuetan baino lotsagabeagoak izan dira.

Balorazioa egiteko orduan azpimarragarria da jende gaztearengan izan duen eragina.

2. Zein da Elgoibarko A.E.K.-ren egoera gaur egun?

A.E.K.-ren egoera orokorrean harturik oso larria da; Elgoibar mailan lotsagarria.

Dagoena ikusita, hizkuntz politika eza nabaria da eta horren eragina gu jasatzen ari gara.

Gure egoera, ekonomikoki, beti bezala, oso diru gutxi eta lana inoiz baino gehiago. Ikaslegoaren aldetik, gutxi ditugu, baina asistentziaren aldetik beste urte batzuetan baino hobea.

Hori bai, A.E.K.ren arazo handi bat ikuskatzailearena da eta hau askotan etortzen da. Ikuskatzailea datorrenean jendea falta bada dirulaguntzetan deskuento bat egiten digute. Gainera kopuruaren arabera talde batzuk ez dizkigute onartzen.

Aurten ikaslegoa gure egoeraz gehiago konturatu da eta inplikatu da. Eta antolatu ditugun ekintza eta mobidetan sekula lortu ez dugun jende eta ikasle kopurua bildu dugu.

Bost urtetan zehar, gu desagertzeko ahaleginak egin dituzte. Eta zenbait urtetan sakabanatuta ibili gaituzte. "Correos" ko etxetik atera gintuzten kultur etxea egiteko baina dena atxikia bat izan zen; H.A.B.E. euskaltegia ipini bait zuten.

Gero, batzuri azoka gainera, besteei gaztete gainera eta gauez Artetxeko eskoletara bidali gintuzten. Dena gu botatzeko izan zen baina ez zuten ezer lortu. Hala ere, ikasle kopurua bost urte hauetan, H.A.B.E.k ipini dituen goxokiak ... parean ikusirik, beraien bestekoa edo haundiagoa izan da; eta aurten baita ere.

Bestela eman ditzatela zifrak eta ez dute nahi. Esaten dutenez obligazioa dute Udaletxean zifrak emateko eta ez dizkigute ematen.

Eta eman dituztenean gezurra izan da.

Honekin lotuta, eta lehengora bueltatuz, ikaslegoa egoera nolakoa den ikusirik guztiz inplikatu da. Enzerrona egitea proposatu genuen eta 26 ikasle joan ziren; gero enkar telada bat proposatu genuen eta baita ere prest zeuden. Ezin dute era gehiagotan azaldu A.E.K.n ikasi eta gurekin egon nahi dutela.

Honetaz gain, komentatzekoa da Udaletxeak herri mailan jendeari egiten dion sakabanaketa, berak ordaintzen bait du Udal Euskaltegiko langabetuen matrikula. Eta gure ikasleak zer, beste klase batekoak dira, ala?

Udaletxeak 14-15 urtetako gazteei ere ordaintzen die matrikula, asistentziaren arabera; baina gureei ez. Marginatu egiten ditu eta gure ere herrian gaude.

Lotsagarria da. Hemen garbi ikusten da klaseak daudela. Momentu batean esan zen listoak H.A.B.E.ra zihoazela eta tontoak A.E.K.ra. Ez dakigu hau egia den, baina, argi ikusten da pribilegiatuak H.A.B.E.ra doazela eta besteak A.E.K.ra H.A.B.E.ra bazoaz subentzioa duzu, bestela konpondu ahal duzun bezala.

Hau beste historia bat da. A.E.K.k erakusteko dinamika propio bat dauka. Badirudi euskara irakastearen helburua gramatika irakastea dela eta hau faltsua da. Guk euskararen erabileraren aldetik egiten dugu lan; erabilera praktikoa, erreala. Saiatzen gara euskara garatzen ez bakarrik eskolako lau ormen artean, baita kalean ere. Euskararen ezagupen hutsa ez, praktikoa lortu nahi dugu. Hau litzateke funtsean gure irakaskuntzaren oinarria.

3. Zein arazo izaten dituzue zuen lanean?

Oztopo handiena ekonomikoa da; dirurik gabe ezin dugu materiala sortu, fotokopiak atera ... ezin dugu ezer egin.

Dirua ateratzeko gure bidē nagusiak, erri-fak saltzea, taberna ipintzea eta jendearen borondatea izan dira. Hala ere, beti defizitarioak izaten gara inoiz ez dugu kubritzen.

Hor gainera; guk lehen, aurtez ez bait da sortu, goizeko taldeetan langabetuei matrikula erdia ordaintzeko aukera ematen genien eta ea guk nondik ateratzen dugun diru hori, baina ... dagoen konpetentzia ikusita ...

4. Zer dela eta, beherapen izugarri hau euskaltegi munduan? Kontzientziario falta izan daiteke?

Baina kontzientziario falta hori zergatik sortzen da? Kataluñan hori ez da gertatzen; Pujolengandik hasita, denek katalaneraz hitzegiten dute. Ez daukagu hizkuntza plangintzarik eta gainera jendeak goikoa kopiatzen du. Hauek egingo balute jendeak gehiago egingo zukeen.

Jendeak ez du eguneroko bizitzan beharrik sentitzen. Hona iristeko goitik hasi behar da; Kataluñan zer gertatzen da? Parlamentuan denek katalaneraz hitzegiten dute.

Gero, gainera, engainua egon da. Goxoki bat ipini zuten, euskara ikasten bazenuen lana edukiko zenuela esanez eta hau gezur hutsa, frakasoia izan da. Eta kontzientzia behartuta lortzen da.



Honekin lotuko genuke, zorioneko 92 urtea dela eta, arlo guztietan kriston inbertsioak egiten ari dira Europatik etorriko den eraso horri aurre egiteko eta hemen ere ez da inor euskararekin gogoratzen.

Iñaki Larrañagak garbi asko esaten du, hortxe dauka euskerak hil edo bizia.

Euskararen ere gastatzen da dirua, baina ez da emaitzik ikusten. Sinbolikoa da. Ispilua, Uda letxean daukagu. Bost urte darama funtzionatzen Udal Euskaltegiak eta oraindik ez da langile bat alfabetatu. Oñatin, municipalak ere alfabetatu dira, kasu honetan borondate politikoa egon da.

Garrantzitsua da, baita ere, euskarak herrian duen balioa. Elgoibarren Euskara ez dago batere baloratua; ez dauka prestijiorik. Nork egiten du euskaraz Elgoibarren?


Horregatik da garrantzitsua gazteena. Orain, 20 urte ingurukoek orain dela bost urte baino gehiago hitzegiten dute euskaraz. Baina dena dela, gazteagoak, ikastolatik irten berriak oso gutxi aritzen dira euskaraz.

Hau, etxean erdaraz entzuten dutelako gertatzen da. Gurasoek erdara darabilte eta beraiek kopiatu egiten dute.

5. Zergatik ez da osatzen alfabetatze talderik?

Ez badago euskalduntzeko beharrik eta kontzientziarik; lojikoak da euskaraz dakienak, defendatzeko nahikoa izanik beste beharrik ez sentitzea.

Euskarak ez du presentzia praktikorik bizitza errealean eta ondorioz, peperetan, irakurtzeko orduan ... oraindik gutxiago. Erderaz egiten duenak ez dauka interesik euskaraz irakurtzeko.



HEMEN GAUDE A.E.K.-KOAK
ELGOIBARKO KALEETAN
GOBERNU HONEK ZER EGIN DIGUN
KONTATZEKO GAUR BERTSOTAN.

LEHEN ESTU TA LARRI GENBILTZAN
ORAIN BERRIZ LARRIAGO
LAGUNTZARIK EZ BADA GASTEIZTIK
JO BEHARKO DA HOR DAGO:

INSPEKTOREA BIALTZEN DUTE
GU ONDO KONTROLATZEKO
EMATEN DUTEN APURRETATIK
GERO ERDIA KENTZEKO.

EUSKALTEGIRA EZ ZAIGU HELTZEN
EZ ZENTIMO EZ PEZETA
GOBERNU HONEK DIRU GUZTIA
HABE-KOENTZAT DU ETA.

INOIZ BARREA SORTZEN ZAIT BAINA
EGIN BEHARKO NUKE NEGAR
EUSKERA AURRERA ATERATZEKO
ESKEAN IBILI BEHAR.

ORAIN ERRIFAK, GERO PEGATAK
HURRENGOAN DA KORRIKA
AURRERA EGIN TA IRAUNTZEKO
BETI GABILTZA HARRIKA.

HERRI XEHEAK ORDAINTZEN DITU
GOBERNUTXO HONEN ZORRAK
BETI BERBERAK PAGATU BEHAR
HAUEK KOMERI GOGORRAK.

PASTELERO DALE FUEGO !!

"PASTELERO DALE FUEGO" sail honetan, sukaldari elgoibartarren errezetak ematea pentsatu dugu. Oraingoan, Madrilgo "Ayerbe" jatetxean lanean ari den Joseba Zabaletaren errezeta goxo bat dastatzeko aukera ematen dizuegu. Bejondizuela!



"PIQUILLO" PIPERREN PASTELA:

Sarrera gisa jaten den platera dugu, hotz jatekoa mahonesa saltsa batez lagundurik.

Osagaiak:

- Kilo 1 etarako puding moldea
- Bi lata "piquillo" piper (Lodosa ingurukoak dira hoberenak)
- Zortzi arraultza
- Urtutako nata, litro erdi
- Piperrauts zuria
- Gatza

Sei bat piper zokoratuko ditugu bukaerako mahonesa egiteko. Ontzi sakon batetan zortzi arraultzak eta gatz piskat ipini. Batidoraz eragin ondoren, piperrak, nata eta piperrauts pixkat gehitu. Guzti hori batidoraz eragin fin fin geratu arte.

Puding moldea gurinaz igurtzi eta ontziko kremaz bete. Laba beroan 40 minututan "bañu maria"n egon ondoren, prest egongo da pastela.

Mahonesa egiteko osagaiak: 2 arraultza, limoi ura, gatza eta litro erdi olio. Mahonesa egindakoan, haseran zokoratutako sei piperrak nahastatuko ditugu batidoraz.


Patela hoztu eta gero, zatitu eta mahonesa gaintetik zabaldu.

PASTEL TROPIKALA:


Osagarri guzti hauek ontzi batetan ipini eta batidora batez ondo eragin:

- Limoi baten ura
- Marrubi potea edo 250 gr. marrubi fresku
- Yogur natural bat
- Esne kondentsatu pote bat

Molde batetan jarri eta izozgailuan sartu hiru orduz. Kontuz, eh! Hozkailuan ez, izozgailuan baizik. Plater batetara bota, flan gisa, eta kontuz a-purtu gabe! Bukatzeko, nata eta intxaurrez ornitu.



AHOLKUAK



FRUTA ETA BARAZKIAK LUZAROAN

Hozkailuko barazkien tokian paperezko serbiletak ipini eta ondoren **barazkiak** eta fruta sartu. Paperezko serbiletak hango hezetasuna hartuko dute eta horrela luzaroan iraungo dizute jaki horiek **beratu** gabe.

...




...

YOGURRA EDERTASUNAREN ITURRI

Yogurra oso janari ona da ez gizentzeko. Honela diote behintzat publizitatean. Baina aurpegiko azala garbitu eta indartzeko ere ezin hobea da.

Ondo nahastu, aurpegia igurtzi eta itxaron hogeitun minutu horrela. Gero, zapi **leun** batez yogurra kendu eta urez ondo garbitu. •

...



URREZKO BITXIEN DIZTIRA

Zure urrezko **bitxien** diztira moteltzen ari da. Bada garaia, hortaz, garbitu bat emateko. Ipinu ur piska bat eta xaboia **irakiten**. Urrezko bitxiak sartu eta eduki bost minutuz eltzean borborka. Ur hotzez garbitu, lehortu eta, gero, alkooletan eduki piska batean. Bukatzeko, ondo sikatu oihal zuri batez. Metodo honek zilarrezko bitzientzat ere balio du.

...



HENRY BENGEO INVENTARIUM

Egileak: Emak bakia baita

Argitaletxea: Elkar

"Henry Bengoa, Inventarium" delako liburu honetan, izen bereko jendaurrekoaren testuak azaltzen dira. Saio literario hau 1.986-1.987 urteetan eman zen Euskal Herriko hainbat lekutan.

Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde, Ruper Ordorika, Alberto de la Casa eta Nando de la Casak ukan zuten errezitatuen eta musikaren ardura.

Irakurleak, hala nahi badu, saioaren grabazio bat esku-ra dezake liburuarekin batera argitaratutako zintan.

••

M-AK

Era askotako musika eta oso modu orijinallean egiteko gai direla frogatu dute. Bere laugarren LP-a plazaratu du, "barkatu ama" tituluaz. Egitura aldetik ez ohizkoa dugu diska hau, hamabost kanta bait dakartza, beraz asko. Airezko doinuen ugalketak atentzioa deitzen du eta tronpeta asko ageri da, baita ere saxoa.

Oro har, taldeko ahotsak orain artean baino dezente indartsuagoak ageri dira, gutxitan ikusi da Euskadin holako konjuntzioa ahotsen aldetik. Kaki-ren kitarra berriz, errez pasatzen da momentu sentiberetatik aldi gogor eta zaratatsuetara.

Beltzen musikagintzaz baliatu dira eta Karibe aldeko erritmodun abesti bat ere badago: Txo ixildu.

Letra, ohitura denez, Kaki eta Xabier Montoiak sortua.



Zuzendaria: Stephen Frears

Aktoreak: Glen Close, John Malkovich ...

••


HARREMAN ARRISKUTSUAK (AMISTADES PELIGROSAS)

Pelikula hau Choderlos de Laclos klasiko frantsesaren izenburu berdineko nobelan oinarritua dago.

Frantziako Iraultzaren bezperetan, aristokrazia hargaiakoiaren maitasun nahiz sexu jokoak nahastu dira filme honetan, guzti hori Markesak, Glenn Close-k maneiatu eta eraginik.

Musika atseginak, janzkera zoragarriak, giroa bikainak eta gidoi nabarmen batek osatzen dute ikusgarri den filme hau.

MENDIZALEAK AURRERA !



TX.: Nola izan zen direktiba aldaketa?

M. : Pare bat biltzar orokorretan ordezeko talderik irten ez zenez, geure burua beharturik ikusi genuen elkarte honen erreleboa hartzera. Talde bat bildu eta lan honetan hasi ginen. Oso talde ñabarra gara, mota guztietako jendeak osatua. Honela, gure artean lehenago izandakoak ere bagara.

Taldea osatzen dugunok honako hauek gara: Ana Casquero, Xabier Osoro, Gloria Bollar, Alberto Agirreazaldegia, Pablo Barrenetxea, Mikel Ruiz de Gauna, Angel Pedrón, Jose Cruz Montes, Eduardo Uribe, Izaskun Estibaliz, J.I. Izagirre, Asier Irureta.

Asmo berriak martxan jartzekotan gaude; irteerak, ikastaroak ... Hauetaz gain lokala berritzea ere nahiko genuke; txukundu eta beharbada mendiko publikazioak ... eskura jarri. Jendeak liburuak begira ditzan, baita ere aldizkariak eta mapak.

Hona jendea zerbaitetan apuntatzera bakarrik etortzen da. Mapak, liburuak, aldizkariak ipiniz gero jendea kontsultatzera ere etorriko litzake.

Hemen zer egiten den jakiteko komenigarria iruditzen zaigu adar desberdinen berri ematea: ekologi arduraduna, administratiboa, material arduraduna ...

TX.: Zergatik ez duzue programen berri ematen "Argia" n ...?

M. : Herriko kartara bidaltzen dugu, baina hemendik kanpora "Argia"n, "Egin"en, "Diario Vasco"an astean behin agertzen den mendi sailera ez. Komeniko litzateke baina dena dela jendea apuntatzeko baino gehiago, kanpora begira Morkaiko hor agertzeko.

Herrikoak enteratzen dira.

TX.: Zein egoeratan dago gaur elkartea? Bazkideak, ekonomia, laguntza.

M. : Egia esan, ez da erraza horri erantzutea. Bazkide aldetik badakigu piloa direla Morkaikokoak, mila baino gehiago.

Informatizatzeke asmoa daukagu; orduan jakingo dugu ziur zenbat dauden.

Hemen zahar-zahar jubilatuetatik, gazte gazteenerarte daude apuntatuta.

Morkaiko, Elgoibarren oso elkarte atipikoa da, alde honetatik oso espektro zabala du. Jendea ez da baja ematera etortzen eta aurten 3 hilabetetan 100 bazkide berri izan ditugu.

TX.: Orain desberdin egiten duzue, norbera etorri behar da. Horrek ez du bazkide kopurua gutxituko?

M. : Ez. Fitxen bidez ez dira bazkide guztiak ezagutzen eta banan banan bakoitzaren etxera joan beharra izugarritzko "rollo" da. Gure asmoa jendeari kontu korronteko zenbakia eskatu eta hortik kobratzea da. Hau, gaur egun, gizartean normalizata dago; baina batzuk ez dute nahi izan eta hauentzat beste formularen bat aurkitu beharko dugu.

Guk % 60 edo 80 aren korrante zenbakia lortu nahi dugu eta tramitazio guztiak karneta, bazkide kuota ... hortik egitea. Kuota hauek oso merkeak dira; 500 pezeta urtean nagusiak, umeak 200 eta jubilatuek dohain.

TX.: Dirulaguntzarik?

M. : Udaletxeari eskatu diogu laguntza. Beste urteetan ere badago konstantzia zerbait laguntzen duela; azken finalista egunean 38.000 pezeta.

Guk egitarau bat aurkeztu dugu; hau da ekintza konkretu batzuk aurrekontu batekin eta kulturari tramitatu subentzio bat eskatuz. Zer emango diguten ez dakigu.

TX.: Mendizaletasuna bultzatzeko zein plangintza jarraituko duzue? Nori zuzendua?

M. : Jende guztiari zuzendua; umeentzat eta nagusientzat ere egin ditugu irteerak.

Gaur beste garai batzutan gaude, ez da orain dela hamar urte bezala, orduan askoz errazagoa zen. Mendizale elkarteek beste biritza bat zuten.

Irteera normalak antolatzen badira, mundu guztiak dauka kotxea eta bere kasa ibiltzea gustatzen zaio.

Alternatiba berriak bilatu behar dira. Irteera tradizionalak antolatu beharrean, kontzeptua aldatuz trabesiak eta beste motatako irteerak antolatu behar dira.

Trabesiak beti egin dira, ez gara gauza berriak asmatzen hasi. Gaur egun ez da frakasoa jende gutxi etorriko dela pentsatzea. Jendea aldatu egin da, eta bakarrik joaten da Pirineo eta Alpetetara. Garai batetan eskursioak turistikoak izaten ziren, baina gaur egun pila bat agentzia daude horrelako irtenbideak ematen dituztenak.

Alde honetatik mendizaletasunari beste giro bat eman behar zaio eta planteamendu ekologistak ere kontutan eduki behar ditugu.

Jendeak uste du mendian, berez, ez dagoela problemarik eta badago; pistekin, zabortegiekin eta berez mendia ez delako zaintzen.

Irteeretara bueltatuz, Aste Santuan Pirineotara egin genuen irteeran, aipatzekoa



Finalista egunean, sari-banaketa egiten.

da autobusa ez zela bete eta beste elkar-
te batekin joan ginela. Eta ondo irten zen
aurreko irteerak bezala. Irteera guztiz
alpinoa izan zen, denek errefugioan egin
zuten lo. Hemen, normalki eskursioak
mistoak egiten dira, batzuk hotelean eta
besteak errefugioan. Honen barruan ara-
zo ekonomikoa ere badago, denek ezin
dute bederatzi - hamar mila pezeta ordain-
du.

Argi ikusten da 18-20 urte arteko jende
asko joaten dela. Hauetako askok ez dute
kotxerik eta baita ere askoren lehenengo
irteera da eta hau promozionatzea komeni
da.

Gazte hauek, laguntzak eta benetako ir-
teera politik nahi dituzte. Alderdi hone-
tatik, beharbada, kritikagarria iruditzen
zaigu orain artekoen joera: ez dago jende-
rik eta punto. Haur zirkulo bizioso bat
da: ez dago jenderik ba ez da ezer antola-
tzen eta ez bada antolatzen, ez dago jen-
derik. Honekin bukatu egin behar da; po-
sibilitateak eman, aukera berriak.

Lehen, mendizaletasuna bertan gehiago
konzentratzen zen. Hau garrantzitsua da,
baina baita ere kanpoko irteerak. Gaur
egun jende gazteak hemendik irtetzea
nahi du eta.

TX.: Aurtengo egitaraua zein da? Irteerak,
filmak ...

M. : Egutegia hor dago baina zerbait komen-
tatu beharko litzateke.

Alde batetik, hilean behin, diapositiba
edo pelikula emanaldia jarri dugu.
Batez ere Elgoibar edo bertako bazkideek
egindako diapositibak, hitzaldiak izatea
nahi dugu eta hau funtzionatzen ari da.
ekintza interesgarria iruditzen zaigu;
diapositibak ikusiz hitzaldi bat eman,
zerbait komentatu eta honela jendea
batu inguru horretan.

Bestetik, Finalista eguna aprobeztatuz
aste horretan ekintza batzuk konzentratu
genituen; diapositiba saioak eta baita ere
filmak eta hitzaldiren bat ..

Hauetaz gain egutegian markatuta dauden
beste irteera batzuk antolatu ditugu.
Maiatzean nagusientzat martxa erregula-
tua eta lau egunetako irteera, ekainean
orientazio ikastaro intentsiboa eta irai-
lean bi asteburutan eskalada ikastaroa.

Beste ezer komentatu baino lehen, ga-
rrantzitsua da baita ere esatea, gure
aktibitateak gehien bat urte haseran kon-
zentratzen direla. Garrantzitsuenetako
bat karnetena izaten da. Tramite admi-
nistratiboak guretzat engorrosoak dira
baina inportanteak; ikusi besterik ez da-
go zenbat jende ibili den.

Mendian aseguratzea oso inportantea da.
Istripua nahiz eta oso grabea ez izan ger-
tatu egiten da. Elgoibarkoei tokatu izan
zaie, ezer grabea gertatu gabe baina he-
likopteroa mobilizatu behar izan zuten.
Pirineoetan ibili behar dena federatu
egin behar da, bestela oso arriskutsua da.

Gainera ez da oso garestia; seguru bat
izateaz gain, Espainiako federazio bar-
rruan zaude eta "Pirenaica" aldizkaria
ematen dizute. Gure federazioaren alde
proselitismoa egitea tokatzen zaigu.

TX.: Talde pribatuen kompetentzia oztopoa al
da zuen helburuak lortzeko?

M. : Neretzat ez dago kompetentziarik. Orain
beraiek sartu dira hor, lehen besterik ez
zegoenez mendi elkarteak arduratzen zi-
ren horretaz. Baina orain beraiek sartu
direnez gu irten egin gara; ez da gure
lana agentzia funtzioa betetzea, ez eta
ere bidaiak antolatzea.

Hauek ez dituzte mendiko irteerak anto-
latzen, mendi ingururako bai eta gero eta
gehiago dira agentziak "Años Luz", "No-
mada" trekinak antolatzen dituztenak.
Hauek ondo daude kanpora joateko India-
ra ... baina hemengoa beste gauza bat da.

Bi aldiz egin dira udaran hilabeteko irtee-
rak, baina gaur egun nahiko zaila da, kan-
potik alternatiba pila bat eskaintzen da
eta.

POLIKIROLDEGIA BAI, BAINA...



Kostata baina azkenean bai. Kirolaz berba egitean, hiztegian aurki daitezkeen kalifikatibo jator guztiak datozkigu burura, alegia, osasuntsu, dibertigarri ... baina hori honela gerta dakigun, ezinbesteko baldintza minimo horiek bete behar dira, bestela, dena ur errean geldituko da.

Hamar lagun horien iritziak entzun ta gero badago zer egin eta zer esanik. Denon artean, lor dezagun gustuko Polikiroldegi bat.

POLIKIROLDEGIARI BURUZ INKESTA

- 1.- *Astean zenbat aldiz joan ohi zara Polikiroldegira?*
- 2.- *Zer izaten duzu faltan eta zer sobran?*
- 3.- *Euskeraren presentzia antzematen al da?*

15 urteko mutila

- 1.- *Astean hiru aldiz joaten naiz eta igeri egitera.*
- 2.- *Ordutegia murriztu dutenetik batzutan ezin izaten naiz joan. Bestalde, taberna haundiegi dela iruditzen zait.*
- 3.- *Bai, bertan lan egiten dutenak badakitelako.*

Kirolari amorratua

- 1.- Ia egunero joaten naiz. Lehengo beroketak egiten ditut eta gero atletismoa, korrika ... igerian ere egiten dut.
- 2.- Pesen lokala txikiegia iruditzen zait eta gainera badago lokal bat ezertarako erabiltzen ez dena.
- 3.- Ez dut harreman haundirik izan baina hitzegin dudanean euskeraz erantzun didate.

Mutil zahar porrokatua

- 1.- Astean behin joaten naiz igerian egitera.
- 2.- Nire ustez instalazioak ondo daude.
- 3.- Bat ere ez.

22 urteko neska xarmanta

- 1.- Astean lau egunetan izaten naiz. Igerian eta squashean aritzen naiz.
- 2.- Polikiroldegia dugunez aktibitate gehiago eskatuko nuke. Squash-eko pista oso txikia da eta hezetasuna dagoenean ezin da jolastu.
- 3.- Oso gutxi.

Itxura oneko mutikoa

- 1.- Astean bitan joaten naiz, squashean eta esku baloian aritzen naiz.
- 2.- Kantxa bakarra egotea gutxi iruditzen zait.
- 3.- Niri euskeraz egiten didate.

Aurrekoaren laguna

- 1.- Bi edo hiru aldiz astean igerian egiten dut.

2.- Dutxetako ura, edo oso hotza edo oso beroa egoten da, eta igerilekukoa batzutan hotza.

3.- Bai.

Aurrekoekin hirukotea osatzen duena

- 1.- Lehen egunero joaten nintzen baina orain astean birritan.
- 2.- Squash eta saski baloiko pista gehiago egin beharko ziren, eta gainera dohainik.
- 3.- Ez, gutxi.

30 urteko musika zalea

- 1.- Astean behin joaten naiz palaz jokatzera.
- 2.- Ez dut ezer sobran ikusten. Hori bai, garbitasun falta nabaria da.
- 3.- Ez, eta kalean ere ez.


Emakume ezkondu bat

- 1.- Hiru aldiz astean ikastaro batetan nago eta, igeriketa ikastaroan.
- 2.- Ez dut hortaz pentsatu.
- 3.- Jendearen artean oso gutxi.

23 urteko neska motza

- 1.- Kanpoan nago eta horregatik behin edo birritan joaten naiz aste bukaeretan, gimnasioan ibiltzen naiz.
- 2.- Muskulazioan makina gutxi dagoela pentsatzen dut, baina dagoenarekin konformatu behar.
- 3.- Gutxi gora behera herrian bezala.

GURUZEDRAMA




Zeharka:

1. Suge erraldoia edo Barakaidoko dantzaleku baten izena. Autoan eramaten duzu, printzipiante hori!
2. Itsasoan erabiltzen den neurri unitatea. Akats ortografiko-sabindarrarekin: euriaren erruduna.
3. AEKren siglak ordenaz aidatuta. Berriro, AEKren siglak beste ordena batetan. Derioko Porreroen Patzuergoa, siglak.
4. «OMEN» bizkaieraz eta alderantziz (begira soluzioa beidur barik). Antibatuentzat «HAU», alderantziz. Bermion ez da bila esaten..... baino.
5. Anarkistek zirkuloz inguratuta idazten duten letra. Buruan, hankatartean eta zopan ere aurki daiteke, alderantziz. Telebistako bikote famatua: ... eta Blas.
6. Hemen AHAIA ipini, bestela ez dago guruzedrama hau egiteko modurik. A kamararia, honek ileak dauzka!
7. Manifestaldietako oihua. NTri dinamita izateko falta zaion letra. Ez mesedez.
8. Behien kantu zoragarria. Izen biblikoa. HABAren siglen siglak, alderantziz.
9. Ismael Athletic-eko futbolaria. Aintzinako «Mando Unificado de Lucha Antiterrorista» zelakoaren siglak, alderantziz.
10. Azufrearen sinbolo kimikoa. Isaac zientzi fikzio delakoaren idazkik eta ikertzaile famatua. Nor/nork indikatiboaren 3. pertsona singularrean.
11. Basamortuetan ura, landareak eta datilak aurki daitezkeen tekua. Taide armatu baten siglak.

Gohitik behera:

1. Bostletrako emakumezko izena. Lau lagun mahaia eta kartak.
2. Alderantziz, Euskaltzaindiaren lema: eta jarrai. Sarritan esaten da, Ben-Hur.
3. Euskal sindikatu baten siglak, alderantziz. ... itxian ez da eulirik sartzen. Filosofo txinar famatua eta oso jakintsua.

4. Ipurditik irteten ohi da (errepikatuta). Begira ezazu Plácido Múgica-ren «Diccionario Vasco-Castellano»ko lehen tomoa, 269 orrialdea. 23. definizioa edota bestela prozesua errazteko soluzioa begiratu. Yankilandiaren siglak, ingelesez.
5. Letrarik borobilena. Txinoek nahastu egiten dituzte: euRia eta Kontzertuetan «beste bat» edo ... oihukatzen da.
6. Ene bada, zer erraza den kontsonante hau, bai, Poftua ere bai edo, isil-isilik dago barrenian. Ipin(i), beste era batetara esanda eta alderantziz.
7. Joan aditza, 3. pertsona singularra. Nola esaten da: tori, eutsi, hartu, bi letrekin. Astoari esaten zaio, ea nork esaten dion Reagan-i (alderantziz).
8. I:an 3. pertsona singularra, alderantziz. IVA euskaraz. EAV gaztelaniaz.
9. Ume horrek ez du konplexua gainditu. Zuria barrutik, berdea kanpotik, laukia da, kotxean eramaten da, guruzedrama honetan lehen ere azaldu da, asmatzen ez baduzu segapoto bat zara. Euskaraz ez dugun kontsonante bat.
10. Bakailoa prestatzeko era, alderantziz. Jainkoetan potoloena.
11. Kaletik goazela «agur» esan beharrean ... esaten diogu lagunari, alderantziz. «Armiar-ma» bizkaieraz (begira ezazu Múgica-ren hiztegia).



DENBORAPASA




MERKE MOZTU NAHI

Beste barberi honetara gazte kalpartsu bezain bizart-su bat sartu da. Bizarginari prezioak galdetu nahi dizkio.

- Zenbat balio du ilea mozteak?
- 800 pezeta.
- Eta bizarra?
- 300 pezeta.
- Buruko bizarra moztuko al didazu mesedez?





Zer esan nahi ote du «Help» horrekin?

Horrek ingelesez «Lagundu!» esan nahi du.

Hobe zuten bere gurasoek ingelesa irakatsi ordez igerian irakatsi baliote.

HELP!

HELP!

HELP!

USO TROPELA



Usu tropel bateko buruzagiari kabilade bat bideratzen zaio eta galdetzen dio: Hau tropel ederra, zenbat zatozte? Buruzagiak erantzun; gu geranok, beste hainbeste, gure erdia, gure laurdena eta hi kabilade alua, ehun justua.

Zenbateko uso tropela da?

- SOLUZIOAK:
- 1. Anakonda/L. 2. Milla/Odeia 3. Ake/Eka/DPP 4. IE/UA/BIPÉ 5. A/AeII/Epi 6. Ahata/Zopa
 - 7. Gora/T/R 8. Mu/Noe/BA 9. Urtubi/Alum 10. S/Asimou/Du 11. Oasís/LAA
 - Jeroglifikoa: Oskarbi
 - Usu tropela: 36 uso



~ DENAK PEKATARI ~

SAL-EROSKETAK!

- * **Artxibo** bezala erabiltzeko armairua behar dut. Horrelakorik baduzu mesedea egingo zenidake. Kontaktuan jartzeko deitu telefono honetara: 741332 .

Lekunberriko apaizari bai, hari gertatu zitzaion ederra. Han ari zen su eta gar predikuan aldaretik, garizuma zela eta eliztar gaisoei ikara sartu nahiean.

— Nik badakit ongi hemen zaudeten guztiok pekatuan zaudetela, denak, denak pekatuan. Denak orain bertan hilez gero betirako infernu ikaragarri hartara joan beharrean. Izan ere, nork da hemen pekatuan aurkitzen ez dena, e? Nor? Begira, eskuan dudan pilota hau botako dut eta honek jotzen duena hura pekatuan dago. Edozein.

Bota du pilota, bere indar guttiz, baina pulpitoan jo, errebotea egin eta berriro berari ematen ez dio badal! Gure apaizak, gorri-gorri:

— Bueltan! Horrek ez zuen balio!

HARREMANAK!

- * " 2.000. urteko neska ederrei " : zuen enkantuak deskubritzeko gogoak ditugu. Gehiago enrollatuko bazinate...

BIHOTZ AHULAK

- * " Oizmendi " tabernan egoten den mutil zahar ile luzedun horrentzat, berataz maiteminduta dagoen opiltxoren partetik, musutxo bat. Arantxa

- * " Beti gazte "-rentzat : hirekin igarotako gau eztitxo horrek neure baitan dirau. Gustatuko litzaidake berriro, hire pospoluaren suhiltzaile izatea. Nekane

- * **Bakarrik egoteari** utzi nahi dion mutilak neska bat ezagutu nahi du. Ahal izanez gero M.L.N.V. -n afiturik. Fidel



H
E
R
R
I
G
I
N
T
Z
A
N

LAN KIDE AURREZKIA  EUSKADIKO KUTXA

190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

Euskadiko
Kutxa



CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA